

“Joerak, Gaiak Kaleko Arteetan”

Frank Wilson

International Riverside Festival-eko zuzendaria eta fundatzailea

Niretzat, atsegingarria eta ohorea izan da Artekalek Umore Azoka honetan hitz egiteko aukera ematea. Kale arteen inguruko joerez eta gaiez hitz egingo dut. Kontu zabal-zabala da, baina pozten naiz zuekin zenbait gauza elkarbanatzeko aukera izateaz; kale arteen programatzaile eta ekoizle gisa, eta 20 herrialde baino gehiagotako (Ipar eta Hego Amerikan, Txinan, Korean, Australian, etab.) jaialdietan izan naizenez, esperientzian zehar ohartutako gauzen berri emango dizuet. Hainbat herrialdetara joateko, hegaldi asko egin behar izan ditut (turista mailan), eta kontuan hartuta ingurumenaren aldetik iraunkorrak diren jarduerak garatzea kale arteetako joera berrietako bat dela, agian nire aukerak berraztertu beharko nituzke etorkizunari begira.

Duela hiru urte, kale arteei buruzko nazioarteko batzar bat antolatu nuen: *Mapping the Streets*. Besteak beste, kale arteek fenomeno orokor legez izandako bilakaerari buruzko jarraipena egiten saiatu ginen batzar hartan, herrialde jakin batzuetako aldiak edo garaiak aztertuz. Manuel Vilanova lagunak eta adiskideak, Xarxa Teatrekoak, oso informazio handiko ikuspegi orokorra eman zuen, Espainian zentzu horretan izandako garapenei buruz. Harrezkero, informazio hori handituz joan da Manuel, eta FiestaCultura aldizkariak argitara eman du. Manuelek adierazi zuen Francoren heriotzaren aurreko eta ondorengo urteak izan zirela Espainiako gaur egungo kale arteen abiapuntua. Aktoreak eta ikusleak kaleetan biltzen ziren, aldi berean ospakizunak eta erronka ekintzak ziren ikuskizunak zirela medio. Oso antzekoa gertatu zen 1990eko hamarkadaren hasieran Ekialdeko Europako blokeko zenbait lekutan, bereziki Polonian. Azkenean, Frantziako kale arteak dira aipatzekoak, munduko beste edozein herrialdetan baino askoz bilakaera nabarmenagoa izan dute. 1968ko maiatzeko protesta politikoetan sortu ziren hango kale arteak.

Erresuma Batuko gaur egungo kale arteek ere 1960ko hamarkadaren amaieran dute jatorria. Nire herrialdean, ageriko kezka politikoak baino gehiago, kontrakultura sortu zuen kale arteak garatzeko aukera eman zuen testuingurua. Artistak eta *performerrak* ez zeuden pozik antzokien, kontzertu aretoen eta galerien muga formalekin; izan ere, haien lana, beraiek eta publikoa mugatuta zeuden. Hori dela eta, kaleetara irten ziren, adierazpen askatasunaren eta publikoarekin harremanetan jartzeko modu berrien bila. Hasieran, ikuskizun horiek *happening* espontaneoak ziren, oso gutxi planifikatuta zeuden, eta hari buruz oso informazio gutxi ematen zen. Beatles taldeak Apple eraikinaren teilatuan emandako kontzertu ospetsua ekitaldi mota horren espirituaren adierazpen erdikorporatiboa izan zen. Beste hainbat *happening* bezala, polizia ekitaldia gertatzen ari zen lekura iritsi eta gutxira amaitu zen.

Gaur egun, Erresuma Batuan, *happeningak* eta antzeko ekintzak, bederen, artista baten jardueraren adierazpen indibidual eta aske gisa ulertuak, Live Art edo Performance Art kategorien barruan sailkatu ohi dira, eta ez dira kale artetzat hartzen. Neurri batean, gure kulturak den-dena sailkatzeko eta zatitzeko duen maniaren ondorio da hori. Dena den, performancean aritzen diren artistek beraiek nolabaiteko mesfidantzaz ikusi ohi dituzte kale arteak. Kale arteen jaialdiak ez dira performanceak egiteko testuinguru egokia. Horrelako jaialdiak aldeztatik iragarrita daude, hainbat ikuskizun eskaintzen dituzte, eta zerbait gertatu zain dauden ikusle formalak dituzte; eta performanceak egiteko, eragina izan nahi bada, espontaneotasuna eta harridura behar dira. Eta puntu horretara iritsita, paradoxa sortzen da; izan ere, frogatuta dago kale arteen publikoak izugarri gozaten duela harritzen dutenean. Kale arteen jaialdien testuinguruan lan egiten dugunok ahaleginak egin behar ditugu aldeztatik aurreko ideiak eta esnobismo kulturala bertan behera uzteko, kale arteen eta performance arteen arteko aldea desagerrarazte aldera.

Aldi berean, onartu egin behar dugu gure kulturaren kale arteen jaialdiek, gaur egun, oso itxura zehatza dutela, eta artistek, antolatzaileek eta publikoak itxura hori aintzat hartu eta ulertzen dutela. Eta halaber, onartu behar dugu beren herrietan edo hirietan horrelako jarduerak egitea "baimentzen" edo "ahalbidetzen" duten agintariak ere aintzat hartu eta ulertzen dutela. *Mapping the Streets* batzarrean kale arteen sustrai modernoak aztertu ondoren, hau galdetu genion geure buruari: ea bere garaian artistak eta *performerrak* beren lana kalean egitera bultzatu zituzten kausak gaur egun ere indarrean dauden. Esate baterako:

Zenbateraino da “kalea” arte adierazpenerako ingurune askea?

Nola aldatu da ingurune hori azken 40 urteetan?

Nor da ingurune publikoaren “jabea”?

Zerk bultzatzen du gaur egungo artisten belaunaldia bere lana kalean egitera?

Batzarreko ordezkariak (artistak eta jaialdien antolatzaileak, hainbat herrialdetakoak) erantzun argi samarrak eman zituzten, unibertsalak, baina, halaber, agerian utzi zuten herrialde bakoitzak bere baldintza bereziak dituela. Egia esan, gaur egun, akordio asko lortu behar dira antzezlanak kaleetan edo beste gune publikoren batean jokatu ahal izateko. Izan ere, horrelako jarduera batek dagozkion laguntzak eta baimenak lortuko badu, eragile askori kontsultatu behar zaio; hala nola, udalari, poliziarari (eta beste larrialdi zerbitzu batzuei), merkataritza sektoreko ordezkariari eta bertan bizi diren pertsonari. Oraindik ere erraz samarra da “gerrilla” motako ekintza azkar edo *flash-mob* bat antolatzea, aurrez abisatu gabe. Ekintza horiek behin bakarrik eta leku jakin batean egiten dira, baimenik gabe eta alde zuzenetik jakinarazi barik. Hala ere, jaialdien antolatzaileek alkatearen laguntza eta babesleen ekarpen ekonomikoa behar dute, eta artistek eta *performerrek* beren lana erregulartasunez antzetzuz bizimodua atera nahi dute, eta, beraz, ezin dute aipatutako jokabidea izan.

Bim Mason Bristoleko Unibertsitateko irakaslea da gaur egun, Ingalaterran, baina, garai batean, kale artista izan zen, eta fenomeno batez ohartu da; hain zuzen, kale arteak kontsumo produktu bihurtu direla ohartu da. Masonek azaltzen duenaren arabera, bere garaian ordain ekonomikorik espero gabe *happening* espontaneoak egiten zituzten artistak eta *performerrek* konturatu ziren kale arteen bidez bizimodua atera zezaketela. Horrenbestez, kale artista profesionalak izan ziren harrezkero, eta beren lanei bilgarri berria eta zaindua jarri zieten, salgarriak izan zitezkeen. Horren ondorioz, kontsumo produktu bihurtu zituzten beren lanak; beste kontsumo produktu bat, gure hirietako hirigune komertzializatuan. Duela gutxi, Txinan izan naiz. Kale arteak apurka-apurka ari dira finkatzen Txinan, alderdi politiko bakarreko estatu batek kontrolatutako ingurune batean alegia, eta estatu horrek mesfidantza handia du ikuskizun espontaneoekiko eta jendetzekiko. Honen moduko biltzar batean, Zhou Ying Zi irakasleak, Chongqing Unibertsitatekoak, zalantzan jarri zuen gune publikoaren kontzeptua bera; hots, pertsona guztienak diren aire zabaleko gunerik dagoela ezeztatu zuen. Publikoak erabiltzen dituen hiri ingurune jakin batzuk soilik hartu zituen

aintzat: higiezinaren sustatzaileen eta merkatarien jabetzako guneak, eta gobernuaren baimenari esker erabil daitezkeenak. Hiri ingurunearen kontzeptu horretan, hiri handi orotan dauden zeremonia gune handiak ere sartu zituen. Gune horiek estatuarenak dira.

Mendebaldeko Europan gauzak oso bestelakoak direla pentsatzea gustatuko litzaidake. Baina ohartzen naiz, gaur egun eta “segurtasuna” aitzakia legez erabilia, Beijinggo Tiananmen Plazan ia bezain zaila izango litzatekeela Londresko Parlamentuaren Plazan protesta politiko bat egitea. Halaber, segurtasun publikoaren inguruko kezka dela eta, gero eta zailtasun gehiago daude Iparraldeko Europan kale antzerkiaren zenbait adierazpen jokatzeko. Ikuskizun anarkikoek —besteak beste, Generick Vapeur konpainiaren *Bivouac* eta *Taxi* ikuskizunak, eta Xarxa Teatreraren Correfocs— hainbat murrizketa dituzte, eta horrek haien mamia ahultzen du. Ikuskizun horiek ez dira orain lehen baino arriskutsuagoak; kontua da publikoko zenbait pertsona ohartu direla auzitegietan dirutza lor dezaketela, ikuskizunean zehar kalterik izanez gero.

Nire ustez, garrantzitsua da kale arteekin konpromiso profesionala duten pertsona guztiek horren jakinaren gainean egotea eta horri buruz hausnartzea; ez egoera horren aurrean deprimitzeko edo gogogabetzeko, konplizitate edo autozentsura jarrerak alde batera uzteko. Ez diot inoiz entzun publikoko inori artistak gaur egungo gizarteaz hitz egiteko eskubidea zalantzan jartzen, baina bai, ordea, udaletako ordezkariak. Oro har, udaletako ordezkariak kale arteek ematen duten “entretanimendu” motaz duten ikuspegia estu samarra izan daiteke, eta beldur naiz, ikuspuntu horri aurre egin ezean, kale arteak ez ote diren kultur garrantzirik gabeko kolore bizi-biziz jantzitako animatzaile multzo huts bihurtuko; alegia, ez ote diren McDonaldsen pailazoa bezalakoak izango.

XX. mendearen amaierako kale arteen arrakasta eta XXI. mendean izango duten hazkunde jarraitua artistaren eta publikoaren arteko harremanean oinarritzen dira. Kanean eta beste gune publiko batzuetan egiten diren ikuskizun eszenikoak berehala antzematekoak dira. Truke horretan, aberastasunak, ezagutzak edo gizarte mailak ez dute mugarik jartzen. Hortaz, kale arteak eszena arte guztietan demokratikoena da. Harreman horrekin batera, beraz, berehalakotasuna eta emozioa daude, eta ezaugarri horiek digitalaren eta Interneten eraginpeko aro honetan gora egiten ari dira. Teknologia berriek idatzizko prentsa, DVDen

salmenta eta antzokiak mehatxa ditzakete, baina kalean artisten eta jendearen artean sortzen den komunikazioa ez dago arriskuan. Kaleko emanaldi batean, publikoko pertsona asko beren tresna teknologikoak erabiltzeko kezkatuta daude, bizitzen ari diren esperientzia grabatzeko edo transmititzeko; izan ere, hori da, XXI. mendearen hasieran, kale arteen jaialdiak definitzen dituen irudia. Egia esan, askotan, sakelako telefonoez eta kamerez ikuskizuna apuntatzen ari diren pertsona horiek guztiek begiak eta irudimena apur bat gehiago erabiltzea eta uneaz gozatzea gustatuko litzaidake, baina hori, beharbada, XX. mendeko ikuspuntua da.

Izan ere, gaur egungo kale arteen joerarik interesgarrienetako bat aurrerapen teknologikoen erabilera da; aurrerapen teknologikoak eta arte adierazpena eskutik doaz. Esate baterako, hirietako planifikatzaileak eta turismo kudeatzaileak Blue Tooth teknologia eta MP3 gailuak sartzen ari dira hiri berri bat ezagutu nahi duten bisitariei laguntzeko, eta, aldi berean, kale artistak ere teknologia bera erabiltzen hasi dira irudimenaren bidaia birtualak sortzeko. Kale arterik onenetan, gure oroimen kolektiboak eta ezagunak ditugun eta gune publikoari buruz ditugun erreferentzien ulermenak itxura berriak hartzen dituzte, artistaren irudimenaren prismatik ikusita. Eta hori oso modu estuan gerta daiteke, norberak buruan daramatzan entzungailuen mugen barruan, edo hiri bereko ehunka, milaka edo hamarna milaka herritarrek elkarbanatutako esperientzia gisa.

2006. urtean, Erresuma Batuan, jazoera definitzailea gertatu zen kale arteen historian, Frantziako Royal de Luxe konpainiak *Sultanaren elefantea* ikuskizuna Londresen aurkeztu zuenean. Ikuskizun hori XIX. mendeko egile baten —hain zuzen, Jules Verneren— lan batean oinarrituta zegoen, baina 42 tonako elefante mekaniko bat Londresko kaleetan eta zeremonia guneetan zehar manipulatzeko trebetasuna harrigarria izan zen, teknologia modernoaren eta arte asmamenaren uztardura. Hiru egunetan zehar, Londresko biztanleak txunditu zituen ikuskizun horrek. Kalkulatu denez, uneren batean, milioi bat pertsonak ikusi zuten aldi berean. Hona hemen eragin horren kausak: alde batetik, pertsonak lagunei eta ezagunei bidalitako mezuak eta irudiak, eta beste batetik, hedabideen ohiko estaldura. 2006. urteaz geroztik, Britainia Handi osoan hedatu da ikuskizun horren eragina; izan ere, gobernuak azkenean onartu zuen kale arteek eragin handiagoa izen zezaketela hiri bateko

bizitzan, gizarte kohesioan eta komunitate mailako harremanetan ehun ekimen politikok baino.

Esperientzia horren ondoren, gobernu nazionalak eta tokiko gobernuek arreta handiagoa jarri zuten arte eszenikoetan. Konpainiei emateko eta jaialdiak egiteko aurrekontua handitu egin zen, eta plan handiak erabili zituzten ahotan, Londres 2012ko Joko Olinpikoekin eta Paralinpikoekin batera egingo diren kultur ospakizunetarako. Iaz, Liverpool hiria Europako Kultur Hiriburua izan zen, eta, *Sultanaren elefantea* ikuskizunak lortutako arrakastaren mailara iritsi nahian, diseinugile bera kontratatu zuten, *Printzesa* sor zezan. *Printzesa* 37 tonako eta 12 metroko zabalerako armiarma bat zen, eraikinak eskalatzeko gai zena. Hain garrantzitsutzat jo zuten ikuskizun hura, non Britainia Handiko lehen ministroak ere joatea izan zuen beharrezko.

Printzesa teknologiaren arrakasta izan zen, baina, zoritxarrez, ez dramaturgiarena; publikoaren erantzuna epela izan zen, ez *Sultanaren elefantearen* kasuan bezain beroa, alegia. Gainera, euria egin zuen. Eta hori gutxi balitz, munduko kreditu sistemak behea jo eta finantza atzeraldia hasi zenean egin zuten ikuskizuna. Kontuan izan behar da atzeraldia kale arteetan ere eragin handia ari dela izaten, gainerako arloetan bezala. Egoera horretan, eskala handiko ikuskizunen sortzaileak dira ahulenak; izan ere, beren sorkuntzak sortzeko eta gero aurkezteko, baldintza ekonomikoak onak izatea behar dute, oraindik horretaz jabetuta ez badaude ere. Egia esan, nekez gaindituko da etorkizun hurbilean 2 milioi euroko aurrekontua; hots, Liverpool hiriak bere armiarma egiteko inbertitutako zenbatekoa. Sorkuntzei dagokienez askoz eskala apalean mugitzen diren konpainiek ere nabaritu dute beren ikuskizunetarako nazioarteko merkatua atzera egiten ari dela; hain zuzen, jaialdien antolatzaileek babesleak aurkitzeko aukerak galtzen ari direla eta fondoak txikitzen ari direla jakinarazi ahala.

Denok espero eta uste dugu atzeraldia aldi baterako fenomeno izango dela, baina une egokian gertatu da agian, ohar gaitezen, edozein lan eskalan mugitzen garela ere, teknologiak artistaren irudimenaren mende egon behar duela, eta ez alderantziz. Frantzia, kale arteek diru laguntza publikoen eta gizarte segurantzaren bidez jasotzen duten laguntza bikaina arrisku larrian dago presio ekonomikoa dela eta, baita kreditu sistemak

porrot egin baino lehen ere. Zenbait konpainiaren joera honako hau izan da: gero eta ikuskizun handiagoak eta garestiagoak egitea, eta, beraz, gero eta herritar gutxiagoren eskura daudenak. Joera horri kaltegarri iritzi diot beti. Beharbada, hurrengo urteetan, kale arterik onenek aurrekontu handien beharrik ez dutela gogoratzeko arrazoiak izango ditugu den-denok; alegia, oroipen ahaztezinak uzteko eta gure hiriak beste ikuspuntu batzuetatik erakusteko ez dutela aurrekontu handirik behar.

FRANK WILSON

Stockton International Riverside Festival delakoaren zuzendari artistikoa Frank Wilsonnek 20 urtetik gorako esperientzia dauka sortzaile, kultura-kudeatzaile eta eskala handiko ikuskizun publikoen ekoizle gisa.

1988an sortutako Stockton International Riverside Festival delakoaren sortzaile/zuzendari den aldetik, Frankek harreman-sare bikaina egin du artista eta ekoizle sortzaileekin; sortzaile horiek leku berezi eta espazio irekietan espezializatuta daude. 1992an, programatzaile lanetan hasi zen gobernuak babestutako European Arts Festival jaialdian; harrezkero, maila handiko hainbat enkargu eta proiektu hartu ditu bere gain kultura-kudeatzaile eta ekoizle sortzaile gisa. 1999tik aurrera, jarduera horiek guztiak Event International bere enpresaren bidez gauzatu ditu.

2005ean, Frank izan zen “Cresting the Waves” ikuskizuna asmatu zuen indar sortzailea, hots, Tall Ships Race belaontzi-estropadak Newcastle Gateshead-era egindako bisitan amaierako ekitaldia asmatu zuena. Ikuskizun horrek, berak bakarrik, 150.000 eta 250.000 ikusle inguru erakarri zituen. 2006an, Frankek, kale-artei buruzko Mapping the Streets nazioarteko konferentzia antolatu zuen; bost kontinenteetako ordezkariak egon ziren bertan.

Azken 5 urteetan, Frank izan da Beijing-eko Chaoyang Udaberriko Nazioarteko Inauteriaren nazioarteko programatzailea eta Zaragozako EXPO 2008 delakoaren laguntzaile ere izendatu zuten; erakusketa horretan espazio publikoetako ikuskizunetarako aholkulari berezi gisa egin zuen lan.

Gaur egun, Frank, Erresuma Batuko Kale Arteen Sare Independenteko presidentea da, eta bazkide-fundatzaile espazio irekietako antzezpen partzuergo hauetan: Without Walls (Erresuma Batua), EUNETstar eta Meridians (EB).